



**ZIERBENAKO UDALAK INGELESA IKASTEAGATIK EMATEN DITUEN
DIRU-LAGUNTZA JASOTZEKO ESKAERAK ARAUTZEKO OINARRIAK**

1.- Artikulua. Xedea eta araubidea

Deialdiaren xedea ondokoa da: 2019-2020 ikasturtean zehar, ingelesa ikasteko aurrez aurreko ikastaroa edo on-line ikastaroa egiten duten **Zierbenan errolatutako 14 urtetik gorako** biztanleentzako diru-laguntzak emateko baldintzak arautzea. Ikastaroak urtekoak edo trinkoak izan daitezke, eta 2019ko irailaren 1etik 2020ko abuztuaren 31ra arteko epealdian egingo dira.

2.- Finantzazioa

Deialdi honen xedea betetzeko, gehienez ere 5.000 euroko aurrekontua egongo da, eta ekitaldi honetako aurrekontuaren 326 48101 aplikazioaren kargura joango da. Funtsa eskaerak jaso ahala banatuko da —betiere eskabideok deialdian ezarritako betekizunak betetzen badituzte—.

3. Artikulua. Onuradunak

Diru-laguntza horien onuradun izango dira Zierbenako Udalean 2018/09/01a baino lehenago errolatuta egon, 14 urte baino gehiago izan eta 2019-2020 ikasturtean ingeles ikastaroak egin dituzten herritarrak.

Ikasturtean zehar ikasturtea hasi zuten abiapuntutik aurrera egin duten ikasleak izango dira diru-laguntza hau jaso ahal izango duten onuradunak. Era berean, diru-laguntza osagarria izango dute titulu ofiziala lortu duten herritarrek.

4. Artikulua. Eskaerak aurkezteko lekua

Eskaerak Zierbenako Udaletxean (Aldapa 1) aurkeztu beharko dira.

5. Artikulua. Eskaerak aurkezteko epea

Diru-laguntza eskariak 2020ko urriaren 1etik urriaren 31ra arteko epean aurkeztu beharko dira. Eskariak ebazteko epea 2 (bi) hilabetekoa izango da.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar egun baliodunetako epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan eta horrela egiten ez badu, bere eskaria ez da kontuan hartuko.

[Escriba aquí]



6. Artikulua. Betekizunak

Eskatzaileek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Zierbenako Udalean erroldatuta egotea, gutxienez, 2018/9/1a baino lehenagotik. **Informazio hau Udalak ofizioz egiaztatuko du.**
- 14 urte baino gehiago izatea.
- Ikastaroan *emaniko* orduen % 85 edo goragoko *asistentzia* edukitzea.
- Diru-laguntzaren xede den ikastaroaren helburua gaindituta edukitzea. Izan ere, ikasleak, **gutxienez**, aurrera egin beharko du, edo matrikulatuta egon den ikastaroa gainditu beharko du.
- Tokiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

Zierbenako Udalak egoki iritzitako egiaztatze guztiak egin ahal izango ditu, diru-laguntzaren emakida dakarten baldintzak betetzen direla egiaztatze aldera.

7. Artikulua. Aurkeztu beharrekoak

- Eskaera-inprimakia.
- NANaren kopia.
- Matrikula ordaindu duela egiaztatzen duen jatorrizko agiria edo kopia.
- Ikastaroa burutu den zentroak egindako ziurtagiria, non ikaslearen asistentzia, hasiera maila eta bukaera maila agertuko diren.
- Lortutako ingeles agiriaren kopia (diru-laguntza osagarria jasotzeko).
- Eskaera-inprimakietan jasota geratuko da kontu zenbakia (IBAN kodea eta 20 digitu); halaber, bertan adierazi behar dira kontu horren titularraren izena eta NAN zenbakia.
- Errolda eta zerga-betebeharrak ofizioz aztertuko dira.

8. Artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa

Diru-laguntza hau jasotzeko xedea eta baldintzak betetzen dituzten ikasleek gehienez ikastaroaren kostearen % 50 jasoko dute, eta gehienez ere 200€ko topea jasoko dute urte bakoitzeko (ez dira diruz lagunduko atzerriko egonaldietan lo egitea, bazkariak, afariak...), harik eta aurrekontuko zuzkidurak agortu arte.

[Escriba aquí]



2020ko deialdian ondorengo taulan agertzen diren tituluetakoren bat egiaztatzen dutenek, 50 €-ko diru-laguntza osagarria izango dute.

AGIRIA	AGIRIA EMAN DUEN ERAKUNDEA
A1, A2, B1, B2, C1 Y C2	EUROPAKO ERREFERENTZIA MARKOARI DAGOKION AGIRIA, HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK EMANDAKOA
1-3 GRADUAK 4-6 GRADUAK 7-9 GRADUAK 10-12 GRADUAK	TRINITY
KET, PET, FIRST CERTIFICATE (FCE), ADVANCED (CAE), PROFICIENCY (CPE)	CAMBRIDGE ESOL

9. Artikulua. Dokumentazioa konprobatzeko eskumena

Udalak interesdunak aurkeztu duen dokumentazioa egiazkoa dela konprobatu ahal izango du.

[Escriba aquí]